

ARRETAZ IRAKURRI ETA GALDERAK ERANTZUN

LOROA



Fernandok loro bat zuen. Bere izeba Nataliak oparitu zion. Egunero, loroak hegoak astintzen zituen esanez:

- Gosaltzera! - eta Fernando esnatzen zen.

Fernando poz-pozik jaikitzen zen, kaiola ireki eta janaria ematen zion.

Baina egun batean, Fernandori kaiolako atea ixtea ahaztu zitzaion eta loroak alde egin zuen.

Arratsaldean, Fernando eskolatik iritsi zenean, loroa bere kaiolan ez zegoela ikusi zuen. Handik aurrera Fernando oso triste geratu zen, ez zekielako nork esnatuko zuen egunero.

- Nork zuen loro bat?

zuen loro bat.

- Nork oparitu zion?

oparitu zion.

- Nola jaikitzen zen Fernando?

jaikitzen zen.

- Zer ematen zion Fernandok loroari?

ematen zion.

- Nola geratu zen Fernando loroak alde egin zuenean?

geratu zen.